

Gastu diruz lagungarriak.

Diruz laguntzen den jardueraren izaerarekin bat datozen gastuek soilik jaso dezakete dirulaguntza, baldin eta oinarri hauetan ezarritako epean gauzatzen badira. Zehazki, gastu kontzeptu hauek lagunduko dira diruz:

a) Laguntza teknikoa (entitatetik kanpoko zerbitzu profesionalak kontratatzea). Pertsona fisiko edo juridikoen kontratazioa diruz lagunduko da baldin eta frogatzen badute deialdi hau egin baino hiru urte lehenago garatu diren 3 parte-hartze prozesu publikotan edota pribatutan, gutxienez ere, jardun dutela prestakuntzan edota kudeaketa eta dinamizazio lanetan. Pertsona juridikoen kasuan, frogatuko da proiektuaren ardura duen taldeak badituela arestian aipatutako esperientzia duten pertsonak, eta horiek dutela proiektua gauzatzeko ardura zuzena.

Esperientzia frogatuko da kontratatutako laguntza teknikoak emandako ziurtagiriaren bidez (5. eredua).

Diruz lagundutako jardueraren %100 ere azpikontrata daiteke.

Gastu diruz lagungarriaren zenbatekoa 12.000 eurotik gorakoa bada (BEZa gabe), frogatu beharko da hornitzailea hautatu dela kontratazio publikoan bete beharreko eraginkortasun eta ekonomia irizpideei jarraituz, salbu eta, gastu diruz lagungarrien ezaugarrien berezitasuna dela-eta, merkatuan hornidura edo zerbitzu hori emateko behar adina entitaterik ez badago, edo gastua egin bada dirulaguntza eskatu baino lehen. Entitate onuradunaren txosten baten bidez frogatuko dira kontu horiek (4. eredua).

b) Kontratazio gastuak: teknikariak edo proiektua egiteko aski gradua duten langileak, entitate onuradunekin funtzionario, estatutupeko edo lan-kontratadun gisako loturarik ez dutenak, kontratatzeako; proiektua gauzatzeko aurreikusitako denbora osoan edo zati batean aritzen ahalko dira. Kontratazioaren gehieneko kostuak, dirulaguntzari egozten ahal zaizkionak, lansari gordinen ordainketari dagozkionak izanen dira, ez besterik.

c) Hizlariak sortutako ordainsariak, bai eta hitzaldien ondoriozko joan-etorrietako eta ostatuko dietak ere.

d) Diruz laguntzen diren jardueren publizitate gastuak eta materialak argitaratzekoak.

e) Lokalen alokairuen eta ekipamenduen gastuak, edo jarduera garatzeko beharrezko material suntsikorrarenak.

f) Diruz lagundutako jarduerak egiten diren bitartean beren kabuz balia ezin daitezkeen pertsonen arreta ematearen ondoriozko gastuak (haurtzaindegia, ludoteka, adinekoak zaintzea eta abar).

g) Gastu finantzarioak eta aholkularitza juridiko edo finantzarioaren gastuak, baldin eta diruz lagundutako jarduerarekin zuzeneko lotura badute eta hura ongi prestatu edo egiteko ezinbestekoak badira.

h) Proiektuan sartutako jarduerekin loturiko gastuak, bidezkotzat jotzen direnak, Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzuak onartzen dituenak eta oinarri hauen 4.7 puntuan berariaz salbuetsita ez daudenak.

Proiektuarekin lotutako zeharkako gastuak:

Proiektuaren zenbatekoaren %8 arte egozten ahalko zaie zeharkako gastuei, 1.000 euroko mugarekin, baldin eta zerikusia badute kudeaketa administratiboarekin edo hornidurekin (hala nola, ura, argia eta telefonoa), zentzuzko neurri batean, baldin eta behar bezala justifikatuta badaude eta jarduera benetan gauzatzen den epean egin badira.

Gastu hauek ez dira diruz lagungarriak izanen deialdi honetan:

a) Banku kontuetako interes zordunak.

b) Interesak, errekarquak eta zehapen administratiboak eta penalak.

c) Prozedura judizialen gastuak.

d) Aperitibo, otordu eta antzekoen gastuak.

e) Entitatearen beraren publizitatearekin edo sustapenarekin lotutako gastuak, Nafarroako Gobernuaren logotipoa agertzen ez bada.

f) Material inbentariagarrien eta inbertsioen gastuak.

g) Jardueretan parte hartu dutenentzako esker-sariak edo opariak, edonolakoak.